

GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARI AINARA MIRANDA SOLANO ANDREAK

ZIURTATZEN DUT: Idazkaritza honetan ditugun datu eta aurrekarietatik ondorioztatzen denaren arabera, Gobernu Batzordeak, bi mila eta hogeita bateko irailaren hogeita biam egindako bilera batean, aurrez eztabaidaturik eta aho batez, hauxe erabaki zuela:

Bigarren puntua.- Lurdes Maiztegui dekanoren txostena eta proposamenak. e) Etika Juridikoaren Domingo Arizmendi Sariaren IV. Edizioa.- Gobernu Batzordeak, aurrez eztabaidaturik eta aho batez, "Etika Juridikoaren Domingo Arizmendi Dekanoa IV. Sariaren Edizioa" antolatzea erabaki du, ondorengo **OINARRI** hauekin bat etorritz:

LEHENA.- Zuzenbidearen jardunean kaudimen etikoaren eta deontologikoaren balioak sustatzea helburutzat duen sari honen helburua, hain zuzen ere, balio horiekin duten konpromiso aktiboan nabarmendu direnei aitortpen bat eskaintzea da, horiek egindako lanari esker lanbide juridikoan aritzearekin naturalki lotutako baliotzat bereganatzen baititu gizarteak.

BIGARRENA.- Sari hau urtero antolatuko da, eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuko Gobernu Batzordearen ardura izango da deialdiaren data erabakitzea.

HIRUGARRENA.- Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuko Gobernu Batzordea Epaimahai gisa arituko da.

LAUGARRENA.- Gipuzkoako probintzian bizilekua duten edo probintzia honekin harreman berezia duten legelariak aurkeztu daitezke sari honetara.

Hautagaitza banakoa nahiz kolektiboa izan daiteke. Interesatuak edo beste edozein pertsona edo entitatek aurkeztu beharko dute hautagaitza hori, **2021eko urriaren 29ko ostirala 14:00ak baino lehen**. Hautagaitza edizio honetarako gaitu den helbide elektronikoa aurkeztu beharko da: premioeticajuridica@icagi.net.

Gobernu Batzordeak beste edozein hautagaitza proposatu eta salbuespen gisa onartu ahal izango du, baldin eta, aurkeztu ez arren, bere iritziz horretarako nahikoa merezimendu biltzen badu.

BOSGARRENA.- Sariak ez du inolako zuzkidura ekonomikorik izango, ezaugarri bereziei eta bildutako merezimenduei erreparatuz Gobernu Batzordeak salbuespenez horrela erabaki ezean. Sariaren irabazleak sari hori egiaztatzen duen plaka bat jasoko du. Egokien irizten dion lekuan erakutsi ahal izango du sari hori.

SEIGARRENA.- Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuko Gobernu Batzordeak gehiengo absolutuz eta arrazoiturik hartuko du erabakia, aurkeztu diren hautagaitzen artetik. Erabaki horren aurka egiterik ez dago.

ZAZPIGARRENA.- Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuko Gobernu Batzordeak **2021eko azaroan** egingo duen bilkuran erabakiko da saria.

ZORTZIGARRENA.- Gobernu Batzordeak atzera bota ahal izango du edozein unetan sariari buruzko erabakia, sariaren irabazleak horretarako merezimendurik ez duela jakinez gero.

BEDERATZIGARRENA.- Sariaren banaketa-ekitaldia behar bezala egokituko da COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren gaur egungo egoerara, Gobernu Batzordeak haren inguruko erabakia hartu ondoren. Sariaren banaketa-ekitaldian Dekano Andre Txit Prestua arituko da buru gisa, eta entzute eta handitasunik egokiena ematen ahaleginduko da, Abokatutzaren irudi

instituzionala eta gizartean duen oihartzun egokia indartzen lagundu dezaketen Justiziako eta Zuzenbideko profesional nahiz ordezkariari gonbidapenak luzatuz.

HAMARGARRENA.- Sari honetara aurkezteak bere oinarri guztiak osorik onartzen direla esan nahi du.

Eta dagokion tokian horrela ager dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, honakoa jakinarazten dut Donostian, bi mila eta hogeita bat urriaren batean.

